

Arrigorriagako Udal Euskaltegia

2019-2020 ikasturteko memoria

AURKIBIDEA

	Orrialdea
1.- Sarrera.....	2
2.- Baliabideen kudeaketa	2
2.1.- Giza baliabideak	2
2.2.- Diru baliabideak	5
2.3.- Beste baliabideak	6
3.- Aurreikusitako plangintzaren ebaluazioa eta betetze-maila	8
4.- Beste helburu batzuk.....	12
4.1.- Ikasturtearen balorazio orokorra.....	12
4.2.- Hurrengo ikasturterako kontuan hartu beharrekoak...	13
5.- Emaitzen azterketa.....	14
6.- Ondorioak.AMIA.....	25

1.- SARRERA

Dokumentu honen bidez 2019-2020 ikasturtean zehar gertatutako gorabeheren balorazioa egin eta ikasturteko egitasmoan ezarritako helburuak aztertu nahi ditugu. Ikasturte amaieran zentroaren diagnostika lortu eta hurrengo ikasturteko egitasmoa osatzea da helburua, hain zuzen ere.

Halaber, Artezkaritza Batzordean eta HABEn euskaltegiaren funtzionamenduaren berri emateko dokumentua dugu berau.

2.- BALIABIDEEN KUDEAKETA

2.1.- GIZA BALIABIDEAK

Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren estatutu berrietan jasotzen diren GOBERNUKO ORGANOAK hauexek dira:

- 1) Batzordeko burua
- 2) Artezkaritza Batzordea
- 3) Zuzendaritza
- 4) Zuzendari akademikoa

1) Batzordeko burua


Alkate-buruak karguari dagozkion eginkizunak euskara zinegotziaren esku utzi zituen 2019ko ekainaren 26ko ebazpenez eta ordutik presidente delegatua izan da. Ikasturte osoan zehar 50 bat erabaki hartzen dira presidente delegatuaren ebazpenen bitartez, aurtun COVID-19 pandemiarekin lotutako hainbat izan direlarik.

2) Artezkaritza Batzordea

Ikasturtean zehar Artezkaritza Batzordeak 5 bilera egin ditu eta denak lehenengo deialdian izan dira. Hiru ohikoak izan dira eta, besteak beste, langileon lanaldiak, eskola egutegia eta tasak onartu dira. Bi ezohikoak izan dira aurreko kontu orokorra eta aurrekontuaren aldaketak onartu ahal izateko. Bestalde, ikasleen ordezkari berria izendatu da 2020ko urtarrilean, euskaltegiko ikasleen arteko hautaketa prozesu baten ostean.

3) Zuzendaritza: hutsik dago

4) Zuzendari akademikoa. Miren Josune Zamalloa San Miguel izan da 2019ko urritik aurrera.



5) IRAKASLEEN KLAUSTROA jarraian agertu bezala egon da osaturik.

- * Zuzendari akademikoa: Miren Josune Zamalloa San Miguel
- * Irakasleak: Itziar Arteagoitia Alonso
Mª Isabel Perez Gervasi


Irakasle batzordeak 10 bilera egin ditu ikasturte honetan eta, besteak beste, hurrengo gaiak eztabaidatu dira:

- Ikasturteko eskola-orduen banaketa eta ikasturtearen antolamendua.
- HABEk egiaztagintzarako emandako jarraibideak kontuan hartuta, euskaltegian laginak hartzean eta gordetzean nola jokatu adostu dugu.
- Udalari trebatzailea euskaltegiko irakasleen arteko bat izatea proposatu diogu.
- Izandako zuzendari bileren berri izan dugu klaustroan: LKS, egiaztagintza, propaganda batzordea...
- Arrigorriagako Udal Euskaltegiak izan duen ikasle beherakadarekin kezkatuta, datorren ikasturtean egin beharreko eskaintza aztertu dugu. Irakasleak lortzeko ahaleginean moldaketaren bat edo beste egin ohi dugu urtez urte, baina 2019-2020 ikasturtean, aurrekoaren antzera, egoera larriagoan gaudenez (HABEren trabak autoikaskuntzako zein IVAPEko ikasleak onartzeko, lan taldea gero eta murriztagoa, ikasle gutxi...) eskaintza goitik behera aldatzeko unea dela aitortu dugu. Hauexek dira irakasle klaustroak udalari proposatu dizkion neurriak: batetik prezioak merkatzea eta ahal izanez gero 0€ko tasa ezartzea kolektibo jakin

batzuentzat; eta bestetik, ordu gehiagoko moduluak eskaintzea ikasleen prozesua luzeegia izan ez dadin.

- ❑ Txangoaren antolaketa.
- ❑ Euskaraldiaren nondik-norakoak aztertu eta Ariguneak sortu ditugu
- ❑ Koronabirusak sortutako egoeraren aurrean hartu beharreko erabakiak: lan egiteko moduak, ikasleak artatzeko eta bideo deiak egiteko aplikazioak, materiala partekatzeko baliabideak...
- ❑ Eskoletara modu presentzialera itzultzeko aukerak aztertu eta aurrez aurreko azterketak antolatu osasun neurriak kontuan hartuta
- ❑ Berbalagun antolatu
- ❑ Ebaluazio bakoitzaren ondorengo balorazioa eta bereziki koronabirusaren ondorioz on line emandako garaia ingurukoa
- ❑ Udako eskaintza: Mintzamina lantzeko ikastaroak
- ❑ Egitasmoa eta oro har euskaltegiaren ebaluazioa egiteko bilera ikasturte amaieran.

ORGANIGRAMA



LANGILEEN KUDEAKETA

2019-2020 ikasturtean ez dugu irakaslerik kontratatu behar izan taldeak irakasle finkoen artean banatu baititugu. Horrez gain, Berbalagun proiektuan sortutako talde biak ere geure esku geratu dira.

Beraz, euskaltegiak 4 langile izan ditu; Administraria, zuzendari akademikoa eta 2 irakasle.

Langileen prestakuntzari dagokionez, 2019-2020 ikasturtean ez da ikastarorik egin. Hala ere, eta koronabirusaren ondorioz, guztiok prestatu behar izan dugu geure burua Classroom, zoom, jitsi eta antzekoak erabili ahal izateko.

2.2.- DIRU BALIABIDEAK

Aurreko ikasturteetan bezala pertsonal gastuak eta diru iturriak aztertu ditugu.

GASTUAK.- Pertsonal gastuak

Urtea	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko kredituak	Agindutako ordainketak	Betearazpen maila
2018	392.561,23	0	392.561,23	346.031,42	%88,15
2019	321.264,65	0	321.264,65	259.275,25	%80,71
Aldea				-86.756,17 (% -25,08)	

Ikusten dugunez, pertsonal-gastuen beherakada %25,08koa izan da, 2018ko urritik aurrera irakasle bat gutxiago egon baita.

DIRU-ITURRIAK

1) HABE

Ikasturtea	Irakasle-orduak		Onartutako pertsonala			Ordaindutako dirulaguntza		Aurreko urtekoarekin aldea %
	aurrez aurre	auto	Zuzendaria	Irakasleak	Adm Lag.	guztira	hainbanatua	
13-14	3.092,50	153,90	1	4	1	199.753,31	199.093,97	% 4,65
14-15	2.905,00	161,00	1	3,5	1	184.263,54	184.263,54	% -7,45
15-16	2.320,00	139,79	1	3	1	169.739,57	169.739,57	% -7,88
16-17	1.859,00	118,53	1	2	1	140.136,25	140.136,25	% -17,44
17-18	2.098,00	178,15	1	2,5	1	159.673,20	159.673,20	% 13,95
18-19	1.590,00	0	1	1,5	1	131.088,74	131.088,74	%-17,91
19-20	1.620,00	0	1	1,5	1	134.666,52	134.666,52	%+2,73

HABEren diru laguntza, aurreko ikasturtean bezala, zuzendaria, 1,5 irakasle eta administrari laguntzailea finantzatzeko beste izan da. Goian agertzen den aldea antzinasunagatik eta urteko lansarien igoeragatik izan da. Azken ikasturteetan ez da hainbanaketarik egon, HABEren aurrekontuetako kredituak Udal Euskaltegi guztien gastu osoa finantzatu baitu. Dena den, eta urtero aipatzen dugun bezala, pertsonalaren gastu errealetik oso urrun dago HABEtik datorren dirulaguntza, hau da, Udaltitzek jasotzen dituen gure mailetatik.

2) Ikasleen matrikulak

Aurrekontutik ateratako datuak direnez, urteka agertzen dira.

Kontzeptua	Aurrekontu kopurua	Jasotako kopurua	Aldea
2014	30.020,00 €	37.312,47 €	+ 7.292,47 €
2015	30.000,00 €	30.018,00 €	+ 18,00 €
2016	45.000,00 €	37.933,84 €	-7.066,16 €
2017	45.020,00 €	47.494,59 €	+ 2.929,59 €
2018	45.020,00 €	26.036,81 €	-18.983,19 €
2019	32.020,00 €	25.103,31 €	-6.916,69 €

2019.urtean agertzen den kopurua 2019-2020 ikasturteari dagozkion matrikulak dira. Ikasle kopurua aurreko ikasturtekoa baino txikiagoa izan denez, matrikula kontzeptuan jasotako kopurua ere txikiagoa izan da. Gainera, Arrigorriagan erroldatutakoei matrikularen %33,33 itzultzen zaie dirulaguntza gisa. Beraz, jasotako kopuruari diru laguntzetan gastatutakoa kenduz gero (6.743,70), diru-bilketa garbia 18.359,61 eurokoa da.

3) Udalak (Arrigorriaga eta Ugao)

Udal bien ekarpenak honako hauek izan dira:

Udala	2015	2016	2017	2018	2019
Arrigorriaga	158.328,65	161.441,39	166.786,09	160.533,13	193.105,91
Ugao	42.898,98	0	0	0	0
Bien artean	201.227,63	161.441,39	166.786,09	160.533,13	193.105,91

Arrigorriagako Udalaren ekarpena aurreko urtekoa baino handiagoa izan da, HABEtik jasotako dirulaguntza txikiagoa izan delako, pertsonalaren gastuak antzekoak izan badira ere. Ugaoko Udalaren ekarpenik ez da egon 2016tik aurrera, 2016an Ugaoko Udalarekin geneukan lan-hitzarmena bertan behera geratu baitzen.

2.3.- BESTE BALIABIDEAK

Alde batetik, COVID-19 birusa dela eta, Euskaltegiaren funtzionamendurako behar izan ditugun hainbat ordenagailu berri erosi ditugu, irakasleek etxetik lan egin ahal izateko. Hona hemen ezaugarriak:

Kontzeptua	Kopurua
Eskuko ordenagailuak: HP INC. HP 250 G7 I7-8565U 256GB SSD 8GB 15IN DVD W10P SP	3
Kanpoko hiru disko gogor (2 TB)	3

Bestetik, otsailaren hasieran Arrigorriagako udaleko zerbitzarian informatika birus bat sartu zen eta bertan gordeta zegoen informazioa ezabatu zuen. Euskaltegiko administrazioko ordenagailua sare horretan zegoenez, garbitu eta formateatu egin behar izan zen eta zerbitzari horretan zegoen euskaltegiko informazioa galdu egin

zen. Honek gorabehera handiak sortu zizkigun eta denbora luzea behar izan dugu galdutako dokumentuak berriro sortu, errekuperatu edota lortzeko.



3.- AURREIKUSITAKO PLANGINTZAREN EBALUAZIOA ETA BETETZE MAILA

1.- HELBURUA: Euskara euskaltegiko geletatik ateratzea kanpo ekintzak indartuz.

BETETZE-MAILA	DATUAK ETA ARRAZOIAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Ez nahikoa	<ul style="list-style-type: none"> - B2 eta C1eko taldeak azaroaren 25ean "Bosteko erakusketa" ikustera joan ziren. - Gaueko C1eko ikasleek azaroaren 28an udalak antolatutako "Euskararen aldeko adierazpen instituzionalean" parte hartu zuten eta afari-merienda egin zuten. - Zenbait ikasle Lonbora joan ziren antzezlan bat ikustera. - Abenduaren 3an, euskararen egunean, ikasleak nahastu eta jolasak egin genituen klaseetan - EITB maratoirako "Lau teilatu" grabatu zuten B2 eta C1eko ikasleek - Martxoaren 15erako Leitzarako txangoa geneukan antolatuta, baina COVID-19aren eraginez bertan behera geratu zen eta handik aurrera ezin izan dugu kanpo ekintzarik egin. - Ikasleek euren klase ordutegietako kanpo arazoak dituzte bestelako ekintzetan parte hartzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasturtearen hasieran ikasleei galdetu zer gustatzen zaien, zertan nahi luketen parte hartu eta eurekin adostu eta "programatu" ekintzak. - Kanpo ekintzaren bat planifikatzea hiruhilabete bakoitzean, nahiz eta batzuetan, batez ere euskaltegira astean bitan etortzen diren ikasleekin, zaila izan.

2.- HELBURUA: Egiaztagintzaren inguruan erakundeetatik datozen aldaketak (datak, mailak...) sakon aztertu eta HABEren irizpideen arabera antolatu gure jarduna.

BETETZE-MAILA	DATUAK ETA ARRAZOIAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Nahikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazio datak lehen hiru hilabetean jakinarazi genizkien ikasleei. - Abiapuntua, tarteko ebaluazioa eta azken ebaluazioa egin ditugu talde guztietan - HABEk ez du bateratze saiorik prestatu. Ondorioz, ez dugu ebaluatze bateratze saiorik egin B2 eta C1 mailetan. - HABEk 3 aukera eman zigun azterketak eta ebaluazioak gordetzeko. Guk paperean eta euskarri digitalean denak gordetzea erabaki genuen eta Q87ra beharrezkoak baino ez igotzea. - A1 eta A2ko azterketak ekainaren erdialderako programatu genituen eta COVID-19a dela-eta, astebete atzeratu genituen. - COVID-19aren eraginez, B2 eta C1eko mintzamen probak egiaztagintzarako erabili ditu HABEk eta Q87ra igo behar izan ditugu 	<ul style="list-style-type: none"> - Abiapuntua neurtzeko prozesua luzatu egiten da (probak egin, ikasle guztiekin tutoria egin, portfolioan helburuak markatu...). - Badaezpada euskaltegian beti gordetzea paperean zein euskarri digitalean - Egokia litzateke irakasleon etengabeko formakuntza eta horretarako mailetako ebaluaziorako bateratze saioetan parte hartzeko aukera izatea.

3.- HELBURUA: Portfolioaren erabilera egokia bultzatu.

BETETZE-MAILA	DATUAK ETA ARRAZOIAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Ez nahikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Lehen egunetan eman diegu portfolioa ikasleei eta bere garrantzia azpimarratu. - Hasierako tutorian hasiera maila edo abiapuntua irakasleok jarri diegu. Horrez gain, hobetzeko aholkuak ere bertan idatzi dizkiegu. - Ikasle gehienek ekarri eta erakusten digute tutoretzetan eta zer funtzio ematen dioten azaltzen digute. Egia da zenbait ikaslek azterketetako idazlanak baino ez dituztela sartzen. Dena dela, ikasle batzuek idazlanez gain, bestelakoak sartzen dituzte (hainbat edukiri buruzko apunteak, hiztegia eta ariketa batzuk). 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleak derrigortu idazlan guztiak biltzera portfolioan erraz kontsultatzeko moduan. Tutoretzan irakasleoi erakutsi aurrerapausoak adierazteko. - Maila altuetan ikasle gutxik erabiltzen du portfolioa tresna moduan, baina erabiltzen dutenek etekina ateratzen diote.

4.- HELBURUA: "Ikasleen gunea" ikastaroa sortu IKASTEN plataforman.

BETETZE-MAILA	DATUAK ETA ARRAZOIAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Nahikoa	<ul style="list-style-type: none"> - NI NEU izeneko ikastaroak sortu ditugu maila guztietarako, autoikaskuntzarako sortutako ariketekin. - Norbere kabuz egiteko ariketa analitikoak aukeratu genituen (errepaso moduan erabiltzeko edo egituraren bat indartzeko), materiala plataforman jarri dugu eta ikasleei horren berri eman diegu. - Covid-19aren eraginez Classroom erabiltzen hasi ginen moddle baino errazagoa iruditu zitzaigulako ikasle zein irakasleentzat. 	<ul style="list-style-type: none"> - 5 ikaslek erabili dute. - Gehienetan ikasleek behar dutena mailako testuak irakurtzea eta entzutea izaten da. Horretarako, ikasbil, irratia, telebista edota egunkaria irakurtzea gomendatzen diegu. - Aukera ona izan da on line aritzeko. Hala ere, ikasle batzuek ezin izan diote on line ikasteari eutsi.(tresna egokirik izan ez dutelako, konexio txarra izan dutelako, umeak etxean egon direlako, informatika ezagutzarik izan ez dutelako...)

4.- BESTE HELBURU BATZUK

4.1.- IKASTURTEAREN BALORAZIO OROKORRA

Ikasturte amaieran egin ohi dugun moduan, Udal Euskaltegiko irakasleek ikasturtearen balorazioa egin dugu, izandako zailtasunak, indarguneak eta hobetzeko proposamenak aztertuz. Bide batez, hurrengo ikasturteko iradokizunak ere egin ditugu, betiere gure lana erraztu eta hobetze aldera.

Hona hemen azpimarratutakoak:

- **Asistentzia:** Azken urteotan gertatu den bezala, asistentzia %80tik gorakoa izan da eta baliteke udalak ematen dituen bekek eragina izatea. COVID-19aren eraginez, etxetik aritu garenean, ikasleek adierazi digute 2,5 ordu pantailaren aurrean ematea gehiegitxo zela. Beraz, hurrengo urtean etxetik aritu beharko bagenu, ikasleekin adostu beharko genuke zenbat denbora eman ordenadorearen aurrean eta zenbat bakarkako lanean.
- **Klaseko jardunari** dagokionez, talde gehienetan Arian metodoa erabili dugu ardatz, baina beste hainbat lekutatik (ikasbil, euskaltegiko orokorra, beste metodo batzuk) hartutako materialarekin osatuta. Aurten lehenengoz esan diegu A1eko ikasleei liburua erosteko eta aurrez aurre ibili garenean baliagarria gertatu bazaigu, are baliagarriagoa etxealdian. Horri esker irakasleok material gutxiago igo behar izan dugu plataformara eta ikasleek gutxiago inprimatu dute.
Datorren ikasturtean, eta COVID-19ak etxera joatera behartuko bagintu, ondo legoke maila guztietako ikasleek izatea libururen bat.
- **Berbalagun:** Euskaltegiak euskararen normalizazioan duen erantzukizunaren jakitun Berbalagun egitasmoak indar berezia du guretzat. 2019-20 ikasturtean berbalagun talde bi sortu dira. Bata asteazken goizetan 12:00etatik 13:00etara eta bestea ostegun arratsaldeetan 19:00etatik 20:00etara. Izena eman zuten 17 lagunetatik 2 ez ziren inoiz agertu eta beste 2 baja izan ziren ikasturte erdian. Konfinamendu garaian ez zen elkarretaratzerik izan, baina apirilean, aste santuaren ostean on line biltzea proposatu eta goizekoak apirilaren 29an telematikoki biltzen hasi ziren; arratsaldekoak, ordea, ez ziren izuli. Talde bietan euskaltegiko irakasleak izan dira dinamizatzaileak.
- **Kanpo ekintzak:** Ez da aurten euskaltegi osoko kanpo ekintzarik egin. Antolatu dugun bakarra txangoa izan da eta bertan behera geratu zen martxoaren 14an egitekoa zelako.
Taldea txikitetan, ordea, egin dira hainbat ekimen, hala nola, "Bosteko erakusketa gidatua" udaletxeko Euskaldun Berrira gelan; C1eko ikasleek afari-merienda egin eta Euskararen aldeko manifestu instituzionalean hartu zuten parte; euskararen egunean, euskaltegian bertan, gela ezberdinetako kideen arteko jolasak antolatu genituen...
Martxotik aurrera ez genuen besterik egiteko aukerarik izan eta datorren urteari begira ere ez da egiterik aurreikusten.
- **COVID-19:** Birusa dela eta, martxoaren 13tik aurrera on-line klaseak eman behar izan genituen. Egun batetik bestera antolatu behar izan genituen Classroom plataformako taldeak, irakasleok eta ikasleok ikasi behar izan genuen erabiltzen, bideokonferentziak egiteko moduak probatu eta martxan

jarri genituen, materiala etxetik bideratzeko ahalegina egin behar izan genuen...

Lan itzela ikasle zein irakasleentzat. Ikasle gutxi batzuek ikasteari utzi bazioten ere, gehienek amaitzea lortu zuten. Datorren urtean ondo legoke ikasturte hasieran prestatzea Classroom taldeak eta ikasleei funtzionamendua erakustea. Badaezpada ere.

- **Horrez gain**, eguneroko jardunean sortutako hainbat arazotxuz ere mintzatu gara, besteak beste, beti bezala **modulu laburrekin** hasi ginenetik, gure lan baldintzak zelan okerragotu diren: maila bakoitzean eman beharreko edukiak ikusteko denborarik ez, irakasle bera maila guztietan sartuta, ordutegi eta egutegi zoroak... Datorren urteari begira, A1 eta A2n 7,5 orduko moduluak eta B1etik aurrera astean 10 ordukoak eskaintzea proposatzen dugu

4.2.- HURRENGO IKASTURTERAKO KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

PROPOSAMENAK

1. Egiaztagintzaren inguruan erakundeetatik datozen aldaketak (datak, mailak...) sakon aztertu, hurrengo ikasturterako ahalik eta eskaintza egokiena egiteko.
2. Ikasle zein irakasleen gaitasun digitala lantzea.
3. Maila guztietan liburuaren erabilera bultzatzea.
4. Osasun neurriei erreparatu eta betearazi euskaltegiko kontingentzia plana kontuan hartuta.

5.- EMAITZEN AZTERKETA

Azken urteotan bezalaxe, HABEren Batzorde Akademikoak onartutako Oinarrizko Adierazleen sistema jaso badugu ere, zenbait moldaketa egin ditugu. Auto-ebaluazio tresna honen bidez, gure euskaltegiaren zerbitzu-kalitatea hobetzea dugu helburu. Horrela, joera zein den antzematearren, Arrigorriagako Udal Euskaltegiari dagozkion azken bost urteotako datuak eskaini ditugu posible izan den kasu guztietan.

Hauexek dira aztertutako adierazleak:

- 1.- Ikasleak
- 2.- Talde-ratioa
- 3.- Ikasleen banaketa mailetan
- 4.- Ikasleen matrikula-orduen batez bestekoa
- 5.- Ikasleak irakasleko
- 6.- Ikas sistemaren tipologia
- 7.- Birmatrikula
- 8.- Asistentzia
- 9.- Lorpenak
- 10.- Egiaztapenetako emaitzak

1.- Ikasleak

Definizioa

Aztergai ikasturteetan euskaltegian aritutako ikasle-kopuruak eta handitze edo txikitze ehunekoak.



Adierazlea

Jardueraren handiagotze /txikiagotzea islatu nahi du

Azalpena

Beharrezko joera izan dugu aurten ere. Euskaltegi txikia izanik, zaila da taldeak sortzea eta aurreko ikasturteko ikasle guztiak maila gaitzitu eta hurrengo urtean ordutegi berean jarraitzea erabaki ezean, ezin da hurrengo ikasturterako talderik ziurtatu. Horrela, benetako interesa duenak eta tituluren bat ateratzeko beharra duenak beste euskaltegi batzuetara jotzen du.

Herria gero eta euskaldunagoa izateak ere izango du zerikusirik gazte gehienek institutuan lortzen baitute 2. HE eta lanbide askotan nahikoa zaie hori aitortuta izatea.



2.- Talde-ratioa

Definizioa


Batez beste, taldeetan egon den ikasle-kopurua.

Adierazlea

Eragiketa: eskainitako ikasle-orduen batura zati taldean emandako orduak

Azalpena

2019-2020 ikasturtean talde-ratioa aurreko urtearen antzekoa izan da. Talde gehienak HABEk eskatzen duen ikasle kopuru txikienarekin sortu ziren eta ikasturtean zehar ez dugu alta askorik izan. Azken urteetan gutxienekoetan ari gara mugitzen. Kezkagarria, oso!



3.- Ikasleen banaketa mailetan

Definizioa


Ikasturte jakin batean maila bakoitzeko matrikula-kopurua, ehunekotan emana.

Adierazlea

Eragiketa: maila bakoitzean egindako matrikulak bider ehun zati euskaltegian matrikulatuak.

Azalpena

Desoreka handia dago maila eta ikasle kopuruen artean. Azken urteetan ikusten genuen gero eta ikasle gehiago matrikulatzen zirela prozesua amaitzeko (B2 eta C1en) edo hasteko (A1 eta A2n). Aurten, lehenengoz gertatu zaigu maila batean talderik ez izatea, B1en hain zuzen. Aurreko ikasturteko A2ko ikasleen artean gutxi batzuek egin zuten aurrera eta B1eko ikasle berririk ez dugu izan.



4.- Ikasleen matrikula-orduen batez bestekoa

Definizioa


Batez beste, zer iraupen-maila duten euskaltegian emandako ikastaroek.

Adierazlea

“Talde-orduak zati talde-kopurua” eragiketak emango digu kopurua

Azalpena

A1 mailan asteen 5 orduko ikastaroak eskaini ditugu, A2, B1 eta B2n asteen 7,5 ordukoak eta C1en asteen 10 ordukoak. Aurten C1eko talde bi sortu direnez, guztira iaz baino talde bat gutxiago izan arren, orduak gora egin dute.



5.- Ikasleak irakasleko

Definizioa


Irakasle bakoitzaren ardurapean zenbat ikasle dauden.

Adierazlea

Eragiketa: zenbat ikasle dituen euskaltegiak zati irakasleak

Azalpena

Modulu laburrekin irakasle bakoitzak talde gehiago hartu behar du bere gain dagozkion klase-orduak sartu ahal izateko. Horrek ezinbestean irakasle bakoitzaren ardurapean dagoen ikasle-kopurua handitzea dakar eta neurri berean erantzukizuna. Gainera, sarri maila desberdinetako taldeak izaten dira. Batez bestekoak behera egin du ratioa iazkoa baino baxuagoa izan delako, baina, aurten, adibidez, zuzendariak izan ezik beste irakasleek hiru talde eta maila ezberdinen ardura izan dute eta horrek programazio desberdinak prestatzea eskatzen du. Berbalaguneko kideak ere azkeneko urteetan bezala, irakasleon artean banatu ditugu.



6.- Ikas sistemaren tipologia

Definizioa


Auto-ikaskuntza bidez ikasten ari direnen ehunekoak. Portzentaje horretatik ehunera bitartean ari direnak aurrez aurreko ikasketa sisteman ari direnak dira

Adierazlea

Eragiketa: auto-ikaskuntzan egin diren matrikulak bider ehun zati egin diren matrikula guztiak

Azalpena

Aurten ere, aurreko urtean bezala, ez dugu autoikaskuntzako ikaslerik izan. Berez, gero eta ikasle gutxiagok ematen dute izena, baina guk, autoikaskuntzari esker, beti izan dugu talde presentzialetara etorri ezin izan direnentzako edo talderik gabe geratu direnentzako irtenbidea. Aurten, berriro ere, ezinezkoa egin zaigu autoikaskuntzako ikaslerik hartzea, HABEk mintzamenerako berariazko taldeak antolatzeko agindua eman baitigu. Gurea euskaltegi txikia izanik, orain arte berariazko talderik ez zuten ikasleak, talde arruntetara bideratzen genituen mintzamina egitera, baina azken aginduaren ondorioz, ezin izan dugu ikaslerik hartu.



7.- Birmatrikula

Definizioa

Aurreko ikasturtean aritu eta hurrengoan berriro ere matrikulatutako ikasle-kopurua


Adierazlea

Ehunekotan emana, ikasturte bateko datuak aurrekoarekin alderatuz. "Euskaltegian berriro matrikulatzen den ikasle-kopurua zati euskaltegian matrikulatua bider ehun" eragiketak emango digu horren berri.

Azalpena

Ikasleen beherakadaren ondorioz, aurten iaz baino talde bat gutxiago dugu, gero eta zailagoa da ikasleak eskatzen duten ordutegi eta mailetan kokatzea. Ondorioz, nahiz eta birmatrikulatzeko asmoa erakutsi, askok beste euskaltegi batzuetara jo behar izaten dute.

Bestetik, C1 mailan izena eman duten gehienak kanpotik etorritakoak dira: D ereduan ikasi eta euskaltegira lehenengoz hurbildu direnak, aurreko ikasturteetan beste euskaltegi batzuetan ibilitakoak edo prozesua duela urte asko utzi eta berriro ikasteari ekin diotenak.



8. Asistentzia

Definizioa


Aurrez aurreko saioetan ikasleriak izan duen presentzia.

Adierazlea

Ehunekotan eskainia. "Ikasleak jasotako eskola-orduak zati emandakoak bider ehun" eragiketak emango ditu horren berri.

Azalpena

Covid-19aren eragina gorabehera iazko asistentziari eutsi diogu. Aipatzekoa da ikasleen jarrera eta interesa, baita irakasleona ere. Itxialdiaren lehenengo egunetan ikasleak animatu egin behar izan genituen, bideokonferentzietara konekta zitezten eta eskura zeuzkaten tresna digitalak erabil zitzaten, baina merezi izan zuen ondo erantzun baitzioten gure eskaintzari.



9.- Lorpenak

Definizioa

Azpi-mailaren bat gainditutako ikasle kopurua mailaka, ehunekoetan emanda.



Adierazlea

Ikas prozesuan zehar ikasleriari aitortutako azpi-maila(k) kontuan hartuta ikasleen ehunekoek emango digute horren berri.

Azalpena

2019-2020 ikasturtean azpi-mailarik gainditu ez duten ikasleak 2018-2019 ikasturtean baino gutxitxoago izan arren, oraindik gehiegi direla pentsa liteke. Hala ere, kontuan izan behar ikasturtearen erdia on line eman dugula eta, horren ondorioz, baja izan diren ikasle batzuk izan ditugula.

Aipagarria da, bestalde, gainditu gehienak muturretako mailetan edo maila errepikatzen ari diren ikasleak dauden talde edo mailetan suertatzen direla. Izan ere, modulu laburrekin urte bat baino gehiago behar izaten da maila osoa gainditzeko. Horren adibidea B2 maila izan daiteke ikasle gehienak B1etik etorritakoak ziren eta zaila egin zaie azpimailaren bat gainditzea.



10.-Egiaztapenetako emaitzak**Definizioa**


Egiaztapenetara matrikulatuetatik zenbateraino gainditu duten egiaztapena.

Adierazlea

Ehuneko bat da: Egiaztapena gainditutako ikasle kopurua bider ehun, zati egiaztapenetara aurkeztuak.


Azalpena

Arrigorriagako Udal Euskaltegiko ikasleek, B2 mailan, emaitza ezin hobeak izan dituzte. C1 mailan, berriz, bestelakoak izan dira emaitzak eta nahiz eta euskaltegiaren ebaluazioan nota onak izan, HABEren azterketan %22,73 baino ez dute gainditu. Egia da, Covid-19aren eraginez, etxetik aritu direla eta ez dela aurrez-aurreko ikasprozesua bezalakoa. Ikasleek etxean lan handia egin arren, bakarka aritu dira etxean, eta, agian ez dute ondo kontrolatu zenbat denbora behar zuten idazlana egiteko gehienek denboraz justu ibili direla argudiatu baitute.



OHARRA: 1. deialdietako datuak baino ez daude.

A1 eta A2 mailak gainditu dituztenen kopurua ona izan da. Are gehiago kontuan hartzen badugu Covid-19aren ondorioz martxoaren 13tik aurrera klaseak on line eman dituztela. B1 mailako talderik ez genuen izan.



6.- ONDORIOAK. AMIA

	AUKERAK	MEHATXUAK
INGURUNEA	<ul style="list-style-type: none"> • Arduradunen jarrera, enpatia. • HABEk euskararen irakaskuntza bultzatzeko egingo duen kanpaina. • 2020ko euskaraldia. • Bekak (udalarena, Euskara Eskura, Haberenak). • Euskara zerbitzuaren Berbalagun egitasmoa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen erabilera eta balio eskasa gizartean. • Inguruko euskaltegiek eskaintza zabalagoa eta merkeagoa izatea. • Herriaren ezaugarriak: lo-herria. • Gazteek gehienbat D ereduan ikasi dute. • Covid 19 dela eta, sortutako ezjakintasun eta arrisku egoera eta bere ondorioak.
	INDARGUNEAK	AHULEZIAK
EUSKALTEGIA	<ul style="list-style-type: none"> • Langile gaituak, esperientziadunak. • Udal euskaltegien sarean parte hartzea. • Geletako baliabide teknologikoak. • 2020-21 ikasturteari begira: tasa berriak (prezio merkeagoa, langabetuentzat dohainik...). • Modulu luzeagoak eskaintzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Etengabeko ikasle kopuruaren galera. • Irakasle gutxi izatea. • Gela txikiegiak (osasan neurriak bete ahal izateko). • Ebaluazio jarraituak eskatzen duen lan eskerga: irakasle bik ebaluatu behar, ahozkoak grabatu... • Maila guztietako azterketak euskaltegian bertan prestatu behar izatea. • Jaurlaritzaren "Udal euskaltegiak gaur eta bihar" ikerketaren emaitzak zer ekarriko egotea.